

IRURA. HERRI-OSTATUA

AURKEZPEN-SAIOA

Eguna: 2022/02/16

Ordua: 17:00-18:30

Lekua: Irurako eskola zaharreko gela borobila

Bilera modua: Aurrez aurre ta online

Etorritakoak:

- Aurrez aurre 13 lagun, 6 emakume eta 7 gizon
- Online, 2 lagun, biak gizona
- Elhuyarretik Elixabet Urzelai eta Idurre Zugazagasti

Akta:

1. Harrera

Saiora hurbildu diren herritarrei ongi etorria eman diegu, eta Datuen Babeserako Legea dela-eta banatutako baimen-orria betetzeko eskatu diegu.

Aldi berean, eta online konektatu diren herritarrei harrera egin eta aurkezpen-saioa online jarraitzeko irizpideak zein diren azaldu dizkiegu:

- Aurkezpenak irauten duen bitartean mikrofonoa itzalita izan behar da.
- Galderarik izanez gero, txata erabili behar da.



2. Sarrera

Gorka Muruak, Irurako alkateak, partaidetza-prozesuaren testuingurua partekatu eta udalaren konpromisoa zein den azaldu du, herritarrei parte hartzeko deia egitearekin batera. Jarraian, partaidetza-prozesuan zehar bidelagun izango diren Elhuyarreko teknikariak, Idurre Zugazagasti eta Elixabet Urzelai, aurkeztu ditu.

Lehen kokapenaren ondoren, saioaren helburua eta planteamendua azaldu ditugu.


- **Helburua:** Irurako herri-ostatuaren inguruko partaidetza-prozesua aurkeztea eta herri-ostatuarekiko espektatibak ezagutzea.
- **Planteamendua:**
 - Sarrera
 - Irurako herri-ostatuaren inguruko partaidetza-prozesua aurkeztea
 - Irurako herritarren herri-ostatuarekiko espektatibak ezagutzea
 - Itxiera

Aurkezpen-saioaren planteamendua partekatzearekin batera hizkuntza-kudeaketa nola egingo dugun adostu dugu.

3. Irurako herri-ostatuaren inguruko partaidetza-prozesua aurkeztea

Irurako herri-ostatuaren kudeaketa-eredua eta espazioaren antolaketa adosteko partaidetza-prozesua azaldu dugu:

- Helburu nagusia eta zeharkako helburuak.
- Lan-egiturak: Talde Eragilea eta Jarraipen-batzordea.
- Partaidetza-prozesuaren urrats nagusiak eta kronograma:



Era berean, Irurako Udalaren konpromisoa partekatu dugu, partaidetza-prozesu honen emaitzaren balioa loteslea berrestearekin batera.

4. Irurako herritarren herri-ostatuarekiko espektatibak ezagutzea

Irurarrek Irurako herri-ostatuaren inguruan dituzten espektatibak zein diren ezagutu ahal izateko banakako ariketa egin dugu eta horretarako, partaide bakoitzari bi post-it banatu dizkiegu, post-it bakoitzean espektatiba bana idazteko.

Ondoren, taldean partekatu ditugu. Jasotako espektatibak lau ideia nagusiren inguruan bildu ditugu:

KULTURA	HARREMANAK – HERRI BIZIA
<ul style="list-style-type: none"> - Kultura bultzatzeko espazioa - Tarteka, kultur ekitaldi txikiren bat egitea - Kontzertu lasaiak - Hitzaldiak - Kultura eta taberna lotuko dituen aretoa izatea - Kontzertu, antzerki eta beste kultur eskaintzak egongo diren lekua - Izaera polibalentea, kulturala - Ekimen kulturalak eta bestelako zerbitzu publikoen iturri izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Gazteek lekua izatea - Elkargune izatea - Herritarrak gustura elkartzeko toki bat izatea - Adin guztietako herritarren bilgunea - Herritarrak bilduko dituen espazio bat - Herritar guztien bilgune bilakatzea - Adin guztietakoei egokitutako toki bat, elkargune bat - Básicamente dar vida a este pueblo y sobre todo que la juventud llegada a una edad no tenga la neesidad de buscar ocio fuera de aquí. - Herri giroa sustatzeko tokia izatea. - Adin desberdinetako jendea eroso egongo den tokia izatea.
ZERBITZUA	BALIOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Taberna eta jatetxe zerbitzua izatea - Taberna - Pintxoak, errazioak, bokatak...ematea - Jateko leku bat - Taberna eta jatetxea - Ostalaritza eskaintza - Edozein egunetan bokata bat eskatu eta baiezkoa esango didaten leku bat - Jatetxe zerbitzua - Bokata eta plater konbinatuak jateko taberna herrikoi bat - Bokata eta plater konbinatuak jateko aukera izatea. - Taberna, kafetegia eta jatetxea - Bazkari edo afari bat egiteko lekua izatea, pintxo eta bokatekin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bertako kultura, euskara, tokiko produktuak eta gertuko ekonomia sustatzea, bere jardueraren oinarrian izango dituen irizpideak bermatzen dituen.

Jarraian, talde txikiak egiteko dinamika bat proposatu dugu

- Herri-ostatua zabalik dagoela irudikatuko dugu, aurkezpen-saiotik atera eta zein plan aukeratuko zenukete?
 - Plater konbinatu bat afaldu
 - Ruper Ordorikaren kontzertu bat ikusi
 - Erreal eta Athleticen arteko futbol-partidu bat ikusi
 - Karmele Jaioaren azken liburuaren aurkezpena entzun

Partaideak hiru multzotan banatu direnez, hiru izan dira osatu ditugun lantaldeak.

Behin lantaldeetan jarrita, eta lehenengo espektatibak entzun ondoren, Irurako herri-ostatuaren inguruan hausnartu beharreko ideia nagusiak zein diren identifikatzeko eskatu diegu, eta galdetu, ea ostatuaren inguruan zerk kezkatzen dituzten.



Talde txikietan denbora bat eman ondoren, hausnartutako ideia eta kezkek partekatu ditugu eta papelografoan multzokatuta jaso ditugu.

HERRITARRAK

- Herritarren beharrei arretaz erantzutea, herritarrak erakarriko dituen espazioa sortzea.
- Herritarren topaleku izatea, adin ezberdinetako pertsonentzako lekua
- Herritarren konpromisoa beharrezkoa ikusten da, herri-ostatura joan eta bertako ekimenetan parte hartzeko.

HIZKUNTZAREN KUDEAKETA

- Aniztasuna zaintzea eta euskara zaintzea
- Hizkuntzaren kudeaketa nola egin? Zerbitzuetako informazioa ele bitan izatea eta euskara sustatzea.

KULTUR-ESKAINTZA

- Kultura eskaintza anitza izatea eta askotariko jendeari zuzendua ere (adin tarteak, eragileak... kontuan hartuta)
- Kultur ekitaldiak adosteko Kultur Mahaia kontuan hartzea
- Kultur ekitaldien maiztasuna adostea eragile ezberdinek ere lekua izan dezaten: adibidez, adostu daiteke interesa duten eragileen artean bakoitzak urtean zenbat ekintza egiten dituen eta egutegia guztion artean banatu.

OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK

- Ostalua aurrera eramateko jende egokia bilatzeak kezka sortzen du.
- Bertako produktuak erabiltzeko apustua egin beharko litzateke
- Eskaintza eskuragarria eskaini beharko luke (plater konbinatuak, pintxoak, bokadiloak...)
- Eskainitako zerbitzuak Irurako beharrei erantzuteko izan daitezela
- Herriko ostalarien arteko harremana sustatu beharko litzateke

ESPAZIOA

- Espazioa goxatzeko ideiak pentsatu beharko genituzke, erabilera ezberdinetara egokitzeko
- Aparkalekuaren inguruko kezka agertu da: pibotea jaisteko aukera egongo da? terraza handitzeko aparkalekuak kendu ahal izango dira?
 - o Irurako Udaletik nabarmendu da, partaidetza-prozesu honen baitan ez dela plazaren edo herriko mugikortasun ereduaren gaineko erabakirik hartuko. Gai hau beste une eta prozesu batean tratatuko da.

5. Itxiera

Amaitzeko, gaurko aurkezpen-saioan parte hartzeagatik eskerrak eman dizkiegu bertaratuei eta hurrengo urratsa zein den gogorarazi diegu:

- o Martxoaren 7an, astelehena, 17:00etan, bizpahiru esperientzia ezagutzeko jardunaldia.